

Kongok koltana badu baina aurrekonturik ez

Lurralde oparoegian bizitzea kalterako izan daitekeela erakutsi dute Kongoko herritarrek. 1998tik 2003a arteko gerrak ia lau milioi pertsona hil zituen. Gerra bukatuta, herritarrek ahal duten gutxia kentzen diote aberastasun horri, zorretan itotako Estatuak abandonaturik.

MVEMBA PHEZO DIZOLELE kazetari independentea da, eta kongotarra. Iaz Pulitzer Center on Crisis Reporting erakundeak enkargatu zion bere sorlekuaz erreportaje saila idaztea, hauteskunde aurretik. Abuztu honetan Afrikako informazio iturri kualifikatua den *Pambazuka News* guneak sarean ipini du Mvemba idatzi kroniketako bat: "In Search of Congo's Coltan" (Kongoko koltanaren bila). Baliabide naturaletan munduko herrialderik aberatsenetakoa den Kongo ulertzeko irudi batzuk eskaini ditu bertan.

Kongo Frantzia halako lau da zabalera, eta honen antzeko biztanle kopuruz, 60 milioi inguru. Bere oiha-netan eta lurpean dituen aberastasunen artean, azken urteotan batek zorroztu ditu inguruko inbidiaren hortzak: koltan izeneko mineralak.

Koltanak osagai ditu kolumbioa eta tantaloa; hortik asmatu zuten "col-tan" laburdura. Sakelako telefonoak, ordenagailu eramangarriak eta bideojokoak egiteko beharrezkoa da gaur egun, darman tantaloagatik. Gaitasun berezia bide dauka miniaturazko zirkuituetan korrontea kontrolatzeko. Horregatik erabiltzen da hegazkinetan eta energia atomikoarekin ari diren lantegietan ere.

Lehendik ezaguna izan arren, 1990eko hamarkadan piztu zuen irrikia. 2000. urte hasieran prozesatu gabeko koltana 3-40 dolarretan ordaintzen zen, eta urte horren amaieran 400 dolarre-

tan. Belaunaldi berriko telefono eta bideojokoen ugaritzeak ekarri zuen igoera txundigarri hori. Espekulazioak ere bai, urte horietan baitzegoen bere gorienean burbuila teknologikoa. Ia lau milioi herritarren heriotza ekarriko zuen gerran ere eragina izan zuen.

Geroago, asko jaitsi zen koltanaren prezioa, baina ordurako mendi eta oiha-netako meategietarako bidea hartua zuten milaka kongotar txiok. Haietako batzuen bila joan da Mvemba Phezo Dizolele kazetaria, Bukavuko eskualdera.

Mvemba txikitan ezagutu omen zuen Bukavu aldea, eta gaur daukan itxurarekin harrিতa geratu da hegazkinetik jaitsitakoan. Segurtasun ezagatik, batez ere. Nazio Batuetako soldaduak aurkitu ditu estreina, bakearen izenean bertaratutako hegoafrikarrak, pakistandarrak, eta abar. Ondoren Kongoko Errepublikak Demokratikoko Armada-koak ikusi ditu bide osoan. "Azokan daude berriketan -idatzi du-, kale kan-toietan zigarreta ahoan, garraio publi-koetan zibilen aurretik sartu nahi dute. Beti daude armaturik, ez dute soldata garaiz jasotzen eta sosa eskatzen dute ahal duten guztietan".

Bideak bezala azpiegitura guztiak era tamalgarrian ikusi ditu kazetariak, eta iruditzen zaio hori dela Estatuaren hondamendiaren ispilua. Gutxieneko zerbitzu publikorik ez dago.

Kivu aintziraren inguruotan azkar nabaritu zen koltanaren merketzea,

2001ean. Espekulazioaren beroaldia Mendebaldeko komertziantek batzuen-tzako pagotxa izan zen, eta ostutakoak urrutiko bankuetan gorde zituzten, gerrako jauntxoentzako ere bai. Beroaldia pasa zen, prezioak hondoratu eta hala ere milaka meatzarik segitzen du koltan bila, beste bizibiderik gabe.

Koltana esportaziorako prestatzen duten langileetako batzuk Olive Depot izeneko biltegian aurkitu ditu Mvemba. Harriduraz beteta. Kazetariak minerala garbitu eta tratatzeko makinak ikustea espero zuen, eta horren ordez dozena pare bat langile aurkitu ditu, lerroan jarrita, eskuekin aztarrika meategietatik ekarritako lur zakar beltzean.

Aitzurrez egiten dira sakelakoak

Gizonak hautsez estalita ari dira. Zakuetatik atera eta lurra ontzi zabal batzuetan ipintzen dute, ondoren putz egiten diote beren ahoetatik... eta hautsa harrotutakoan ontzian geratu diren koxkor beltzak, horiexek dira koltana.

Langileek ez daramate inolako jantzi berezirik, gehienek maskararik ere ez. Oinutsik daude, agian propio. Inork ez dauka kontraturik, noski. Goizero, lan egin nahi duten herritar ugari lerrokatzen dira usinak atarian, eta bakar batzuk aukeratu dituzte ugazabak. Egunean irabaziko dutena ez da dolar batera iritsiko. "Baina lan hau ez bageneuka, lanik ez geneukake batere".





Mvemba Phezo Dizolele kazetariaren artikulua argazkiok hornitu dute Pulitzer Center on Crisis Reporting erakundearen web gunean. Erdiko foto txikikoa Bukavuko auzo batean dagoen Olive Depot-ean ateratzen da. Bertako langileetako bat ikusten da eskuartearen onti bat duela: meategietatik ekarritako lurra putzatzeko garbitzen ari da: haizearekin hautsa harrotutakoan, koltan koxkorak geratzen dira plateretan. Beste lau argazkiak Mushangi-ko meategietan daude eginak. Koltan bila lan egiten duten haur eta gaztetxoak ageri dira, lanabesik sinpleekin beharrean. Holakoak milaka dira Kongoko bazter guztietan, lan baldintzarik penagarrienetan eta armada ofizialaren aldetik denetarik desmasiak nozituz. Horrela eskuratutako koltan merkea nazioarteko merkatura ateratakoan, askoz garestiago saltzen da, daraman tantaloa munduan oso urri dagoelako. Gure tresna elektroniko aurreratuenetan darabilgu, kondentsadore sofistikatuak erabiltzen dituzte.

Kontratistak etekin handiagoa aterako dio koltanari, ziur. Baina kontratista ere oso prezio apaletan ari dela dirudi. Hiriburutik etorriko zaizkion komertzianteei koltana libratu 1,59 dolarretan saldu die azken aldian. Nazioarteko merkatuan libratu 8 eta 18 dolar artean pagatzen da.

Minerala hemendik Ruandan barrena aterako da, Mombasa edo Dar-es-Salaamgo portuetarantz. Askok kontrabandoan, Kinshasako gobernuak ezarritako zergak ez ordaintzearen.

Kazetariak, ondoren, meategietan ari diren langileak ikusi nahi ditu. Horretarako Bukavutik 90 kilometrotara joan behar izan du, Mushangiko minetaraino. Zaindari armatuz lagunduta iritsi dela aitortzen du kronikan; eskualde horretan milizietako jendea dabil batera eta bestera; armadako sol-

daduekin berriz, ezin askoz gehiago fidatu.

Mushangiko meategietan langile heldu batzuk eta batez ere haurrak aurkitu ditu, adin guztietakoak. Tresnarik kaxkarrenekin eta inolako babesik gabe ari dira. Berdin dio harri solteak erortzen badira edo tunel ilunetan inolako euskarrik ez baldin badago. Izarretik izarra egiten dute lan.

Hamar urte dituen Bashizi-rekin mintzatu da. "Lan hau egiten dut gure aita zaharregia delako ni mantentzeko. Eta hemen ez dago beste lanik". Hamasei urteko Baruti-ri galdetu dio ea badakien koltana garesti pagatzen dela Amerikan eta Europan, ordenadoreak, sakelakoak eta bideojokoak egiteko beharrezkoa dela, eta ez, ez zekien.

Irudiok abuztuan eskaini ditu *Pambazuka News* web gunean Mvemba

Phezo Dizolele kazetariak. Egun horietan *Znet* aldizkarian honako artikulua plazaratu zuten Eric Toussaint eta Damien Miller-ek "El Congo: Una Historia de Saqueo y Sumisión".

Eric Toussaint oso ezaguna da Hirugarren Munduko Zorra Deusezteko Batzordean (CADTM, frantsesezko sigletan) egiten duen lanagatik. Toussaint eta Millerrek Kongon uda honetan datozen urteko aurrekontuekin zer gertatu den kontatu dute. Hona laburpena.

Antoine Gizenga buru duen gobernuak aurkeztutako aurtengo aurrekontuen zirriborroak proiektu arras neoliberalaren ezaugarriak zituen. Athanase Mtenda Kyelu finantzetako ministroak aitortu zuen Nazioarteko Diru Funtseko (NDF) buruzagiekin adostuta zegoela. Baina ekainaren 14an proiektuari aldaketak sartu zizkieten diputatuak Batzar Nazionalean, aurrekontua handiagotzeko asmoz.

Lau egunen buruan, ekainaren 18an, bere haserre azaldu zuen NDFko zuzendaritzak. 23an Kongoko gobernuak Senatuari eskatu zion lehenera eramateko aurrekontuak, munduko diru erakundeari plazer egiteko, eta Senatuak 29an hala egin zuen. Senatuko presidentea, Leon Kengo Wa Dondo, Mobutu diktadorearekin lehen ministro izan zen.

Nazioarteko Diru Funtseari esker, Kongoko bere 60 milioi biztanleekin 2.400 milioi dolarreko aurrekontua dauka aurtengo. Biztanle kopuru berarekin Frantziak aurrekontu horren halako 200ekoa dauka. NDFk bere 2.700 enplegatuarekin Kongo osoaren aurrekontuaren antzekoa dauka. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php>
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



Produkturik
onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik
zabalena
bataurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako
bataurrekoetan.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hemani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL.: 943 420 624